

## Intxaurrondo


## Aparkalekuak salgai

Aitor Navarro (finoa.: 943-288919)

Eusko Jaurlaritzak apar-kalekuak jarri ditu salgai Intxaurrondoko iparraldean. Guztira 104 aparkaleku salduko dira hiru lekutan banatuta: 57 Zarategi pasealekuan, 20 Mons pasealekuko 139-145 zenbakietan, eta 27 Mons pasealekuko 95-101 zenbakietan, denak lur azpian.

Eusko Jaurlaritzak sustatutako duen proiektuaenez, lehen tasuna izango dute Intxaurrondoko iparraldeko gizarte-etxebizitza jabeek edota bertan bizi direnek. Interesatuak eskaera orriak Eusko Jaurlaritzaren Andia kaleko egoitzan har ditzakete. Izena emateko epea hil honen erdialdean bukatuko da.

Prezioei dagokienez, metro karratuak 44.325 pezeta balio ditu. Kontuan hartuta aparka-



Mons pasealekua-  
ren lur azpian  
47 aparkaleku daude  
salgai.

Argazkia: Iratxel Otegi

lekuen azalera 27-30 metro koadro bitartekoa dela, azken prezioa milioi t'erdi pezeta da.

Auzotarrek begi onez hartu dute ekimen hori. Ipar Hai-zea auzo elkarteko ordezkarien esanetan, "idea ona izan da.

Intxaurrondoko aparkalekua-  
ren arazoarekin bukatuko ez den  
arren, lagungarria izango da".

**Visesak ere bai**

Hauek ez dira, dena den,  
Intxaurrondon salgai dauden

aparkaleku bakarrak. Hegoaldean, Sagastieder pasealekua-  
ren azpialdean, Visesak 61  
aparkaleku ditu salgai. Apar-  
kaleku bakoitzak 1.160.000  
pezetako prezioa du eta edono-  
ren eskura daude.

**INTXAURRONDO  
IKASTOLA**

Zarategi pasealekua 48 • INTXAURRONDO  
Tfinoa. eta faxa: 943-285110  
e-mail: 012367aa@hezkuntza.net



- Haurtzaindegia
- Ingelesa eta musika haur eskolan
- Jangela

**AITOR  
IKASTOLA**

Konkorrenea 5 • EGIA  
Tfinoa./faksa: 943-282132-943-275625  
e-mail: aitor@ikastola.net

- Haurtzaindegia
- Ingelesa eta musika haur eskolan
- Jangela

**LAUAIZETA  
IKASTOLA BHI**

Gabriel Arestii 165 • EGIA  
Tfinoa. eta faxa: 943-293005  
Tfinoa: 943-291024 e-mail: 012958aa@hezkuntza.net



2 - 16 urte  
**MATRIKULAZIO EPEA**  
Otsailaren 7-tik 18-ra

**Egian eta Intxaurrondon kalitatezko  
irakaskuntza euskalduna**